

Nafarkaria

• ostirala • 2002ko urtarrilaren 18a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Elbete • Makalak inguruetan desager ez daitezzen bihar herritarrek 32 makal landatuko dituzte erreka bazterrean
Martin Goikoetxea, «Goiko» • «Argazkilari bezala jendearekin izandako harremana da azpimarratzekoa»

• OSKAR MONTERO

Abd-ar-Rahman gurean



Abd ar-Rahman III. kalifa ospetsua Nafarroako lurretan barneratu zen 924 urtean, eta, besteak beste, Azkoien, Faltzes, Tafalla, Zarrakaztelu eta Zangoza suntsitu zituen. Antso Garzes I. Nafarroako erregeak aurre egin zion Abd ar-Rahman III. kalifari Zangozako inguruetan. Zangozarrak, baina, ezin izan zituen musulmanak garaitu. Pedro Belaskoain ikertzaile zangozarrak gogoratu digu Ibn Hayyän Kordobako kronistaren liburu baten gainean egin iruzkinean.

Uitziz

Orixe, ume gaitzets

Uitziko kontzejuak Orixe izeneko lehendabiziko literatur lehiaketa antolatu du

«Ume gaitzets» esaten omen zioten Uitzin txikitan Nikolas Ormaetxea Orixe idazle gipuzkoarrari. Idazlea omendu nahian eta euskaraz egiten den literatur produkzioa sustatzeko asmoz, Orixe literatur saria antolatu dute.

«**N**ERE BIZI GUZTIKO hutsaldia, bi ama eta amarik ez. Hortatik gelditu zait beti bihotzean ezin betezko hutsa. Bihotz bat aurkitu nahi nerearen atsedenerako, haurtzaroan eta gero ere, eta aurkitzen ez. Nik ere haragiz egina dinat eta amaren ordaina bilatzen ibili arren, umezurtz gelditu naun. Amaren muxu bat ez zekinat zer den», esan zion behin Dionisia arreba mojarri Nikolas Ormaetxea Pellejero Orixe idazle gipuzkoarrak.

1888ko abenduaren 6an sortu zen, Gipuzkoako Orexan, Nikolas Ormaetxea, San Nikolas egunarekin. Hiruki jaio zen Orixe, hiru haurralditan zazpi ume izan zituen emakume baten semea, eta hiru urte zituelarik ondoko Uitziko familia batengana eraman zuten sendoago haz zedin.

Uitzin bizi izan zen hamazazpi urte artean, Jesusen Lagundikoekin Xabierreka ikastera joan zen arte. 35 urterekin kanporatu zuten joan den mendeko euskal olerkari ezagunetako.

Adituek diotenez, Uitzin hasi zen Ormaetxea baztertuta sentitzen. «Uitzin, ume gaitzets deitzen zioten; Jesuitedan, bakardade ilunera umilia-



Nikolas Ormaetxea Orixe idazle gipuzkoarra Uitzin bizi izan zen txikitan.

● EGUNKARIA

tua; Bilbon, politikoez zentsuratuta; Orixeko herritarrek baztertuta; Guatemalatik bueltan, berea ez zuen etxetik kanporatua», adierazi zuen behin Patziku Perurena idazle leizarrak.

«Orixenea»

Uitzin Orixeren presentzia nabaria da egun. Bertan, antzinako ikastetxea, Orixenea izeneko etxea, topa daiteke. «Orixe Uitziko bi etxetan bizi izan zen, eta eskolari Orixenea deitzea erabaki zuten. Egun umeek ez dute jada bertan ikasten, beraz, etxe honi erabilpen bat eman nahi diogu, baina oraindik ez dakigu zehazki zer egingen dugun», adierazi du Larraungo Udaleko Euskara teknikari Ainhoa Berazak.

Nikolas Ormaetxea omendu nahian, izen bereko lehendabiziko literatur lehiaketa antolatu du Uitziko kontzejuak, Larraungo Udalaren laguntzaz. Lehiaketak bi sail izanen ditu, olerkia eta narrazio laburra, eta saria 601 eurokoa izanen da (100.000 pezeta).

Gaia librea da, eta idazlanek jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izan behar dute. Egile berak sail bakoitzean lan bakar bat aurkezten ahal du. Lanak aurkezteko epea otsailaren 28an bukatuko da.

Informazio gehiago lortu nahi izanez gero, edo lanak bidaltzeko, zuzendu Larraungo Udaleko Euskara Zerbitzura: Aralar, 4; 31870 Lekunberri.

→ Estibalitz Ortega

Bera

Zinemazaleentzako hitzordua

Berako Kultur Batzordeak zine-kluba paratuko du abian hurrengo hilabeteetan, herrian kalitateko zinema eskaintzeko xedearekin. 60ko hamarkadan desagertu ziren eskualde guztian zeuden zinema aretoak (Bera, Lesaka, Doneztebe, Elizondo...), eta orduz geroztik zinemak ez du normaltasunez lekurik izan eskualde osoan. Zinema merkatuak izan duen aldaketak ere eraginik izan du horretan, eta gaur egun ezinezko bihurtu da zinema iraunkorki eskaintzea. Donezteben orain urte batzuk igandean egindako emanaldiak izan ziren salbuespena, Bidasoako Film Laburren Lehiaketarekin batera.

Berako Kultur Batzordeak, ordea, hutsune hori betetzeko asmotan, kalitateko zinema eskainiko duen zine-kluba antolatu nahi du. Zikloka antolatuko dituzte emanaldiak (zuzendari, herrialde, genero jakinenguz inguruan). Eskualdeko zinemazale guztiei egin diete dei heldu den ortzegunean, hilaren 24an, arratsaldeko 20:00etan Kultur Etxean egingen den bilerara ager daitezten. Bertan filmen aukeraz arduratuko den lan taldea osatu nahi dute, eta lanari ekin, lehenbailehen filmak eskaintzen hasteko.

Berako Kultur Etxeak gaur egun zinema emateko beharrezkoa den azpiegitura du (2000ko abuztuaren Bertizko Turismo Partzergoarekin batera erosi zuten tresneria guztia).

→ Jon Abril

Massilia a Caesar capitur

AITOR TXARTERINA



Europako Batasunean dauden euro txanpon guztiak une berean patriketatik atera eta lurraren kontra jaurtiko bagenu ez lirateke zarata mediatikoa bezain harrabotsu suertatuko. Zarata, hotsa, burrunbak inguratzen gaitu, hala egunkaria nola telebisiore, bai irratia, dela aldizkeria (aldizkaria, barka)... Anitzetan iduritzen du medietan minutuak eta paper zuriak zirriboratu beharra dagoela. Nahitaez. Demagun egun batean ez dela deus gertatzen munduan. Deus erabatekoa. Errutinak aginduko du egun xelege horretan. Ez da hildako gehiago, ez gutxiago. Jaiotze tasa, betikoa. Prentsaurrekorik ez. Gerrak ez du irudi berririk eskaini. Esclusiva-rik ez da saldu. Ikertzaileek eguna libre hartuko dute. Eta gala. Bada, euroarekin antzekoa gerta zitekeen eta ez da hala jazo. Kontrakoa baizik.

Eurogelkeriak

Adibide zenbait:

Pre: billeteak errektangeluarrak dira eta txanponak borobil, gehi kolore eta materialez eta hau eta bertzeaz nahi adina baino informazio gehiago. Informazio versus propaganda.

Urtarrilak 1: Alpileta: Euroa jada hasi dira erabiltzen Europan. Aldez aurretik jendeak bazeukan aukeran diru zorro bat, kutxetan zegoeneko euro billeteak ateratzen ziren... non da albistea?

Propaganda gehiago: Ikerketa soziologiko zenbaiten arabera, EBko hiritar ugari arrenkuratzen zen kapitalak sorturiko jostailuagatik (portzentaia ez ditut gogoan, baina kasu gehienetan populazio erdia baino gehiago

kexu zen euroa zela eta.) Jaso ditugun irudietan, berriz (salbuespenak salbu) jendea irribarretsu ageri zen eurobilletea eskutan zutela.

Urtarrilak 7. Pentsua: Euroa jada pezeta baino gehiago erabili izan da. Tankerako esaldi bat otu zaigu guri: Euria barra-barra egin du, zelaiak eta larreak jada blai daude.

Urtarrilak 9. Kexuak: Kobrezko (?) txanponak gaizki egin dituzte (sic), estreinatu eta bi egun geroago itxuraldatu zaizkigu: dizdira galdu dute, xarma ere zalantzan omen, belzten ari dira segundorik segundo, eskuz esku. Billeteak ez sartu ur azpian, fallsutzaitzat hartuko baitzaituzte. Euroa, azkenik, ez bota amorrut zolaren kontra, erdibituko baita (Fisikoki: uztaita alde batetik eta barnekoa bertze batetik). Egun kalkulak egitea nekeza bada, pentsa euroak balio erdia galduko balu. Ifernua lurrean!

Elbete ●

Makal Landatze Eguna

Makalak gero eta urriagoak dira erreka bazterretan

ASPALDITIK ZEBILTZAN ELBETEKo gazteak Makal Landatze Eguna antolatu nahirik. Urtero, irailaren 12an, Elbeteko gazteek 25 metro inguruko makala mozten dute, biharamunean herriko plazan landatzeko. Bestak akabatzen direnean, arbola bota eta egurretarako erabiltzen da. Aunitzetan, makala «lapurtzera» joan eta lurrera erortzen denean erditik hausten da. Makal aunitzek «taladroa» izeneko eritasuna dute. Barne-tik usteltzen dira zuhaitza hiltzen den arte. Bestalde, makalaren egurra gero eta gutiago erabiltzen da (20 urte inguru kostatzen zaio zuhaitzari handitzea); eta, adibidez, pinuaren egurra askoz merkeagoa da. Era berean, Elbeten betidanik izan da makala mozteko ohitura, eta honen guztiaren ondorioz, makalen kopurua izugarri jaitsi da.



Urtero, irailaren 12an, Elbeteko gazteek 25 metro inguruko makala mozten dute, eta biharamunean herriko plazan landatu. ● ONDIKOL

Urtero herriko bestetan makala goratzen zutenean, gero eta gutiago zeudela konturatzen ziren. Zuhaitz hau inguruetan desager ez dadin, bihar herritarrek 32 makal landatuko dituzte erreka bazterrean.

ketan herritarrek Karrikatxarren bilduko dira, zuhaitzak non jarri erabakitzeke. Lehenik eta behin, aitzineko urteetan makala kendu zaienei eman nahi zaie landarea. Ondotik, nahi duenak bere lur eremuan makala jar-

tzea eskatu ahal izanen du. De-netara 2 metro baino gehiagoko 32 makal landare jarriko dituzte Baztan erreka inguruan, behar den hezetasuna bilatuz. Adituek gomendatutakoaren arabera, ez da bertako makal

klaserik jarriko, arras ahulak baitira. Makalak Tuteratik eta Frantziatik ekarriak dira, eta us-tez, eritasunei errazago aurre egin diezaiekete. Gastuak herriak hartuko ditu bere gain hasiera batean, baina Baztango Udalarik laguntza eskatzea ere aurreikusi dute. Ahaleginaren ondotik, herritarrek ostatuan bilduko dira bazkari ederra egiteko. Baztanen gehienetan gertatzen den bezala, besta eguna mahaiaren inguruan akabatuko da.

→ Rakes Goñi

Aspalditik aipatzen zen Makal Landatze Eguna antolatu behar zela. Makalak urtarri-otsail aldean landatu behar dira, eta inauteriak zirela eta ez zirela, ideia beti bere horretan gelditzen zen. Iaz ahalegina egin zen. Patxiko Burgete alkate juradok Baztango Udalarik landareak eskatu zizkion, baina honek makalak bakarrik zituela jakinarazi zuen, eta herritarrek ez zuten eskaintza onartu.

32 makal gehiago

Zorionez, aurtengo gazteek makalak garaiz eskatu dituzte, eta hainbertze urtetako ametsa beteko da bihar. Goizeko hamai-

Baztan • Bertsolariei gorazarre

IGANDEAN, HIRU BERTSOLARI OMENDUKO DITUZTE Elizondon: Roman Miura leharoztarrera, Juanito Perurena Goizuetan sortu baina Arizkun kokatua eta Felix Iriarte arizkundarra. Nafarroako Txapelketaren zein bertsolaritzaren berpizkundean lan eskerga egin dute hirurek, eta Nafarroako Bertsosale Elkartearen eta Baztango Udalaren ekimenez omenaldia eginen zaie. 1960 eta 1969 urteen artean jokatuak Nafarroako lehen txapelketa aldian parte hartu zuten hirurek. Roman Miura zein Juanito Perure-

na, gainera, behin baino gehiagotan sailkatu ziren finalerako. Mariano Izetak bultzatuta, eta honek bertsolaritzarekin izan zuen loturak eraginda, parte hartu zuten hirurek Nafarroako Txapelketan.

Goizeko 11:30ean hasiko dira ekitaldiak Elizondoko elizan eginen den mezarekin. Ondotik, Nafarroako Bertsosale Elkarteak urteko Batzar Nagusia eginen du, eguerdiko 12:30etik goiti. 2001. urteko kontuak eta balantzea egitearekin bat, 2002ko egitasmoa eta aurrekontuak ere aztertuko dituzte

bertan. Baztarraren ostean, bazkaltzera bilduko dira eskualdeko zein Nafarroa osoko bertsosaleak, Antxitonea trinketean. Bazkalosterako dago prestatua omenduentzako eskaintza eta bertso saioa. Lehenbiziko zatian, Mikel Altzartek okasiorako prestatutako bertsoak kantatuko ditu musikarien laguntzarekin, eta Baztango hurrek ere kantatuko dituzte bertsoak. Ondotik, oroi-garriak banatuko zaizkie omenduei, eta bertso saioaren tarte izanen da ondotik. Bittor Elizagoien, Manolo Arozena, Imanol Lazkano eta Joxe Agirre ariko dira kantuan.

→ Jon Abril



urda
aren
mintzoa

Xabier Larraburu

Baztango Balea Txuria

Zer esango dizuet bada. Baztuetan gertatzen zaidan gauza da hori. Baztuetan Larraburu-Eneko liburutegi erraldoian nago (ohi dudadez) eta, zasl, bat-batean aspertzen naiz irakurtzen ari naizen liburuarekin eta orduan niri bost Egiptoko Karnakeko tenpluan 1903tik 1905era aurkitutako ehunka estatua haiek eta niri bost tartean Amenofis III.-aren estatua oso arraro, oso bitxi, oso esanguratsu bat egotea ere. Eta horrelakoetan, liburu itxi (eta berarekin batera ehunka estatua uraren azpian segitzen dutelako iradokizuna) eta arima lurrera jausten zait, eta jauregi barrualdeko telefonoa hartu eta «Bexikulas, prestatu Mercedes Txuria», esaten dut, eta horrela errepikatzen dituzte nire hitzak Larraburu-Enean kokatutako bozgorailu txiki horiek guztiak: bai zalditegi zabalean kokatuak daudenak, bai eta golf zelaiko zuhaitzetakoak, bai eta mendian, basoaren erdiko tontorrean, dudan udako etxolatxoan, eta horrelakoetan, basoaren erdian nire aginduarekin hegan jarri ditudan txori ikaratuak kontuan hartzen ditut (eta guzti), eta honek berak tristatu egiten nau, zeren ezinegona handia izaten da horrelakoetan. Eta handik zazpi minutura, Mercedes txuriaren zarata entzuten dut ate nagusian gelditzen dela eta Bexikulasengana (nire maiordomoa, nire txoferra, nire lorezaina), Mercedes txurirantz, abiadurantz jaisten naiz eta orduan Larraburu-Enean utzi eta Bexikulas gidari duela Mercedes txuriak 200 kilometro orduko abiadura Baztango errepideak gurutzatzen ditu, isil-isilik (Mercedes bat da), inongo zaratarik gabe, Mobi Dicken antzera, eta bihurtuz bihurtuz oihanetara igotzen gara eta artadietara jaitsi eta bidegurutze baztuetan «ziga» esaten diot, edo ez, eta Bexikulasek ezagutzen nau eta ez du piperrik ere esaten: dena da abiadura eta isiltasuna (balea txuriaren antzera). Eta gauzak izorratzeko mobilak jotzen du eta Bexikulasek hartu eta ispilutxoan agertzen den nire irudi tristeari begira «Nicole Lafontaine da, nautsi, Demokrazia eta Askatasuna sustatzeagatik sari bat eman dizute-l...». Katxuen... Nicole, beti Nicole, eta orduan intelektual ospetsuarena egiteaz aspertua nagoela konturaten naiz. baina telefonoa hartu eta, beti bezala, «Bonjour Nico, Ça marche?» hasten naiz... ●

Abd ar-Rahman III. Nafarroan izan zenekoa

'Zangozako arbasoak omen zituen kalifa entzutetsuak 924 urtean Nafarroako hainbat herri suntsitu zituen



Abd ar-Rahman III. eta bere gortea. ● HARLUXET

Duela urte eta erdi erreportaia egin genuen Pedro Belaskoain Zangozako ikertzailearen kontura, 1574 urtetik aurrera herri horretan izan diren jaiotza, ezkontza eta heriotza guzien aktak jaso zituelako. Orduan, Abd ar-Rahman III. kalifa ospetsuaren inguruko artikulua eman zigun, Zangozatik pasatu zenekoa kontatzen zuena, nahi genuenean argitaratzeko. Bazen garaia, oroitzapenen kaxoitik berreskuratu eta argitara emateko. Hona hemen Abd ar-Rahman III.-ak gurean egin zuena, Kordobako kronista musulman batek kontatua.

ANDALUZIAKO KALIFETAN OSPETSUENA, ABD ar-Rahman III., begi berdeetako kalifa, nafar jatorrikoa zen, Zangozako akaso. Bertakoa zen Antso Garzes I., mairuen aurkako borroketan gehien nabarmendu zen Nafarroako erregea. Garzesen amatxia, Oneca 'Gas-koi', Kordobara joana zen Fortu Garzes erregea, bere aita, bisitatzera, hantxe baitzegoen preso. Bere edertasun hilehoriak Abd Allah emirra txunditu zuen eta berarekin ezkondu zen. Haien semea, Muhammad, Abd ar-Rahman III. ren aita izan zen, eta honek, kronisten arabera, bere amatxia zenaren bertuteak eta aurpegiera hartu zituen, baita bere begi berdeak ere.


Duela urte guti Marokon, Marrakex-ko mezkita batean, «Abd ar-Rahman III. an-Nāsir kalifaren kronika» (912-942) izeneko liburua aurkitu zuten, Ibn Hayyān Kordobako kronista ofizialak idatzia. Liburu horretan zehatz mehatz kontatzen dira kalifak gidatu zituen kanpaina guztiak. Nafarroan 924 urtean egin zueneko, Iruñeko kanpaina izeneko, interesatzen zaigu guri. Hona hemen kronistak kontatutakoa:

Iruñeko kanpaina (312 urtea)

Hegiraren ondoko urte hartan (924ko apirila - 925eko martxoa gurean), an-Nāsir kalifak lurralde sinesgabeen kontrako kanpaina abiatu zuen, Iruñeko izeneko, Jainkoaren etsaien herria, baskoi sinesgabeen herria. (Gure egutegiaren otsailaren 10ean abiatu zen Kordobako alkazaretik).

Kalifak sortalderako bidea hartu zuen. Eta Velez herrian gelditu zen lehen egunean. Hantxe bi egun eman zituen Gerra Santua egiteko beste hainbat lekutan lerrokaturiko soldaduen esperoan. Bidean, Valentziatik, Lorcatik eta Murtziatik pasatu zen, baita bertako jauntsuak garaitu ere.

Goiko Markara abiatu zen gero, harriko-korrek bezain ugaritsuak ziren tropekin. Zaragozaren inguruetan gelditu zen, handik



Tuteraraino igotzeko. Bere bila Tuyibiak atera ziren, Zaragozako jauntsuak, eta armada handiak eta hornidura osoak eman zizkioten. Eta horiek guzietan Iruñeko herrialde sinesgabeen sartu zen (924 urteko uztailaren 10ean) erabakitasun handiz, asmo irmoz, Jainkoa eta bere erlijioa sinesgabeen profanazioegatik mendekatzeko.

Nafarroara, Kalagorritik

Herrialde hartan egin zuen lehenbiziko geldialdia

Kalagorritako gotorlekuan izan zen, zeina Antso bere buruzagiak, Jainkoak madarika dezala, hustuta zuen; kalifak agindu zuen gotorlekua suntsitzea eta bertan zegoen guzia erretzea.

Handik Qantara Alba izenez ezagutzen den lekura joan zen (Azkoien). Bertan toki seguruak zeuden, baina sinesgabeak lasterka joanak ziren handik, eta ihesaldian bagajak eta elikagaiak abandonatu zituzten bertan. Zenbaitzuek ibai gaineko hiru kobazuloetan hartu zuten aterpe beren familia eta seme-alabekin. Musulmanak igo eta gainetik eraso zieten, Jainkoak kobazuloak konkistatzen lagundu zien arte; barbaroak akatu, haurrak preso hartu, eta hornidurak bereganatu zituzten. Eremu hartako gotorleku guztiak suntsitu zituzten, harri bakar bat ere zutik gelditu gabe.

Hantxe egun bat igaro eta gero, an-Nāsir Faltzesko gotorlekura joan zen, inguruak erre zituen eta bere utza eta balibide guzietan bukatu zuen. Ondoren, Tafallako gotorlekura abiatu zen, etsaiek zituzten gotorleune artean garrantzitsuenetakoa, eta han ere hornidura anitz bereganatu zituen kalifaren armadak. Gogo handiz aritu ziren musulmanak etxeak suntsitzen. Eta handik Zarakastelura joan ziren, Aragoi ibaiaren ondoan, eta han ere uzta guziarekin bukatu zuen.

Zangoza suntsitzeraino

Ondoren bururatu zitzaion sinesgabeen herrialdearen bihotzeraino sartzea, non seguru sentitzen ziren, hantxe bertan min egiteko. Baskoien Haizpitartetik barneratu ziren (924ko uztailaren

Abd ar-Rahman III. kalifa ospetsua Nafarroako lurretan barneratu zen 924 urtean, eta, besteak beste, Azkoien, Faltzes, Tafalla, Zarakastelu eta Zangoza suntsitu zituen.

17an), eta armada sartu zen beste edozein armada sartu ez zen lekuetatik, gotorlekuak errez, herrialdea suntsituz, Zangozako herrian gelditu arte. Bertakoa zen Antso barbaroa, Jainkoak deusezta dezala. Zangozako eraikinak suntsitu eta barruko guzia erre zuten.

Honek barbaroaren buru-estimua mindu zuen eta bere sinesgabeak eta batu zitzaizkion kristauak bildu zituen, kopuru jakina lortu arte, eta pentsatu zuen haiekin musulmanak garaitzen ahal zituela. Zalditeria agertu zen zenbait mendi garaien gainean (924ko uztailaren 21ean) eta an-Nāsir kalifak armada agindu zion arretaz egoteko. Baina goizez, martxan, Jainkoaren konfiantza osoz, tropak mendi garai haieetatik pasatu ziren, Jainkoaren etsaiak musulmanen atzealdea edo hegala erasotzeko aukera baten zain zeuden bitartean.

Armada mehargune haieetatik pasatzen ari zelarik, Ega (Irati?) izeneko ibai baten ondoan, sinesgabeen zalditeria mendietatik jaitsi zen eta oinezkoie eraso zien borrokaldi labur bat sortuz. Kalifak gelditzeko eta hantxe bertan borrokatzeko agindua eman zuen. Musulmanek ibai zeharkatu eta etsaien kontra jo zuten lehoi saiaturaren gisara.



Ibn Hayyān-en kronikaz zenbait argibide

IBN HAYYĀN KORDOBAKO KRONISTAREN «Al-Muqtābis V» liburua, irakurketa atseginekoa, kalifak bere hareneko dontzeila batekin izan zituen maitasun kontuekin hasten da. Geroago kontatzen ditu bere etsaiek akabatzeke egin zituen kanpainak, penintsulako alde musulman guzira bere menpean hartu arte. Guri interesatzen zaiguna Iruñeko Kanpaina da; eta

hori da transkribatu duguna.

Bere itzulpenean, Jose Maria Laka-rra historialariak Zangoza eta Irunberri artean dagoen Ega ibaia galdera ikur batekin aipatzen du, ez baitu zentzurik leku hartan Ega ibaia kokatzeak. Zangozako lekuizun zaharren gaineko nire lanetan, hainbatetan agertzen da Guia ibaia, eta Irati ibaiaren parekoa da. Hortaz, Zangoza eta Irunberri arteko Wādī Higa ibaiari dagokion itzulpena Guia dela uste dut, eta ez Ega. Litekeena da Ibn Hayyān kronistak ibai bat bestearekin nahastu izana.

Liburuan, kalifaren armadaren ibilbideaz ari dela, kronistak dio Zarakastelutik aitzina egin zuela Baskoien Haizpitartetik (Fayy al Baskūns), Caseda eta Gallipentzu artean, Baskunnsyraino (Baskonia, Zangoza). Datu hauek ez ohi dira Nafarroako historia tratatuetan agertzen; berriagatik direlako agian.

Transkripzioa Antso Garzes erregearen heriotza ere ekarri dugu, bere heriotzaren data zehatza eta arrazoiak ezezagunak baitira. Bere jaioterriari dagokionez, Zangozako zela erran ohi da. Lakarrak sorlekua Castillon (Santa Margarita meatzea) eta Rocaforteko Cañada artean kokatzen du. Berdin dio, bi lekuen artean 800 metro besterik ez baitaude.

Etsaiek beren posizioetik mugiarazi eta ondoko mendi batera bidali zituzten. Atzetik joan ziren eta, Jainkoaren laguntzaz, horietako anitz hil eta lurzorua gorpuekin tapizatu zuten.

Antsoaren heriotza

Urte hartan ailegatu zen Antso tiranoaren heriotzaren berria. Baskoien errege Iruñean hil zen, Jainkoak suntsi dezala herri etsai hori, Sulaymān b. Umar b. Hafsum gurutziltzatu eta gero; biak parekoak ziren musulmanei eginiko minan eta biak elkarrekin hil ziren.

Antsoaren heriotzaren arrazoiak zera izan zen, herrialde etsai baten aurkako kanpaina batetik bueltan, garailu eta ospilarekin, bere herrira itzultzean eta Jainkoak eman zizkion preso eta gatibu guztiak ikusi zituelarik, euforia harropuzta sorrarazi zitzaion eta zaldia arrapaladan abiatu zuen; honek leize ezezagun bateraino eraman zuen, eta eroturik barneratu egin zen, eta zalduna hondoraino bota zuen, suntsituta lurrera jaurtikiz; handik hiliak atera zuten, Jainkoak madarika dezala, eta horrek in poztasuna doblea izan zen, eta grazia, berehalakoa.

→ Pedro Belaskoain

Lurrinetan

Txirlak eta pelikulak. Mendebaldeko kultura garaikidearen ikonografiaren arabera, saunak toki guztiz erotikoak dira. Nire uste apalean, mendebaldeko kultura garaikidearen ikonografiaren asmatzaileak pelikula gehiegi ikusi ditu, eta gutxiegitan joan da saunara. Ikurrina baino baskoagoa den Gerardo mus bikotekidea ez da Mendebaldeko kultura garaikidearen ikonografiaren asmatzailea, baina gai honetan adierazgarria delakoan nago. Iruindar peto-pettoa izanagatik ere, ez da inongo igerilekutako bazkide. Ez sosik ez duelako —Gerardo taxista da, eta taxista eta sosik-eza kontzeptu uztartu ezinezkoak dira foru hiriburuan—, baizik eta independentista eta sozialista delako —«ordena horretan», nabarmentzen du behin eta berriz, **Patxi Zabaleta erreformistak El Pais** egunkariari hurrenez hurren sozialista eta independentista dela adierazi zionetik—. Besteak beste sozialista izanda, Gerardok ezin du bat egin ekimen pribatu eta baztertzaileren ugaltzearekin —hori omen da igerileku bateko bazkide egitea—. Hori dela eta, Gerardo ez da sekula izan sauna batean. Baina sauna ardatz moduan duen azpi-genero pornografikoko hainbat film ikusi ditu. Onenak **Rocco Sigfredi** aktorearen bi ei dira: *Almejas al vapor* (*Txirlak lurrinetan*) eta *La locomotora humana* (*Giza lurrin makina*). Hori guzti hori dela kausa, saunara noala esaten diodan aldi oro, Gerardok begia kliskatu eta irribarre mehar maltzurra egiten dit.



Jaime Ignacio Del Burgo politikari erregionalista.



Finlandiar sauna bateko marrazkia.

Idiak eta errealtatea. Ni jaio nintzenetik naiz Iruñeko Tenis Elkarte-ko bazkide. Eta zenbaitetan saunara jotzen naiz. Zehatzago adierazita, nire zabalkuntza pertsonal prozesu gero eta azkarragoak arratsaldean Monte Carlo mus partidatik aldentzeko behar bezainbeste agobiatzen nauen aldi oro. Azken egunotan, Eguberrietako gehiegikerien ondotik, egunero lehen mus partida burutu bezain pronto abiatzen naiz Teniserantz. Halaxe egin dut gaur, geratzen zitzaidan kuba-libre erdia urrupada bakarrean edanda. Saunara heldu naizelarik, mukuru beteta topatu dut: nire tonelaje bereko dozena erdi idi izerdi patsetan. Zoofiliko ez garenontzat, erotismo zipitzik ere ez. **Jai-**

me Ignacio Del Burgoren antz ikaragarria —ikaratzeko modukoa— duen idiotako batek —ez dira klonatzen ariko?—, zertxobait aldenduz, esertzeko tokia utzi dit. Bankuan utzitako tokia umel dago. Ez, umel ez, bustita, izerditan blai eginda. Gerardorekin oroitu naiz. Pelikula gutxiago eta errealtate gehiago behar du, alor batean baino gehiagotan.

Sumoa eta aluzinazioak. Eseri eta berehala Euskal Herriko beteranoren sumo selekzioa osatzeko moduko koadrilak berriro ekin dio nire etorretarak moztutako solasaldiari. «Beltzarantxo gauzak ongi egiten ari da», bota du Del Burgoren klonak. «Barka-

tu, baina beltzaranak ez du ile-horiarren *saber a faire*—a, ez eta urrik eman ere», oldartu zaio **Eradio Ezpeleta**ren antz ikaragarria duen —akaso Eradio bera zen— beste bat. Azkenean, sauna erotiko samarra suertatzen ari da. «Biok tronpatuta zaude. Preposizio egokia ez da *ala, eta* baizik: ez da Yolanda ala Nuria, baizik eta Yolanda eta Nuria», moztu du **Rafael Gurrearen** iguala den hiru-garren batek. Akabo erotismoa. Non nago? Zeintzuk dira? Nori buruz ari dira? Akaso kuba-librea utzi beharko nuke. Edo sauna. Edo Tenisa. Zorabiatzen ari naiz. Maite ditut maite zure bazterrak lanbroak ezkututzen dizkidanean...



panpilonia zirkus

Ostibar madarikatua!

Baziren dantza egiteko areto batzuk, ohiko txikiteroen bidetik bazter gelditutako taberna zulo modernoren bat edo beste, baina garai hartan gazte sasoiaren zeudenek diote hirian ez zela zer egin handirik igandetan, Osasunak Sadarretik kanpo jokatzeko zuzenean, batez ere. Jende eternoen garaia omen zen hura: Franco, Paulo VI.a, Ezkurra, Osasunaren ibilera errariak ere betirakoa irudi zuen gisan, Hirugarren eta Bigarren Maila artean, burua goratu ezinik.

Giro hits hura ahazteko, gizonetako franko *q l'autre côté*, hau da, mugaz bertaldera joaten ziren, Lapurdik eskaintzen zituen aukeraz baliatzen: kasinoa, zinea eta Chez Maité. Horrela egin zuen laukote batek seiszientosa hartuta: iturgina, zerbitzaria, Torfinasako langilea eta

Vasconiako bulegaria ziren. Denak ezkongabeak. Auto aunitz bazihoan muga aldera. Ez zen harritzekoa, apiril hartan *Dernier tango q Paris* filma ematen ari baitziren Biarritzeko zinean. Iruñean, ahoz aho zabaldu zen Marlon Brandok gurinarekin zuen abilezia, eta jende askok «*kia*» erranagatik ere, gero aitzakia aurkitu zuten udaberri hartan Lapurdi bisitatzeko.

Biarritza iritsita, gizon kapela handiaren aspiko karantza ezaguna egin zitzaion, baina ezin asmatu nor zen hura. Birra batzuk hartu, rikard bat edo bertze, sarrerak doi-doi erdietsi, filma hasia zela barnera sartu, —«*erraten nian nik ba, Frantzian etzegok NODORik, motel*»—, eta hantxe jarri ziren, txirrinta gorriak hartuta, jendez mukuru zegoen zine areto



Jesus Ostibar, Osasunako aspaldiko golegileea.

hartan, tutik ulertu ez baina Iruñean sekulan santan ikusiko ez zutena begiz jotzeko prest. Eguerdiko gizon kapeladuna ere han zen: «*Hi, orain heldu zaidak. Hori duk esklaboen arrosarioko zuzen-*

daria». Ez ziren gutxi han zeuden kasuak, aurpegia erdi maskaraturik.

Azkenean, bazirudien filma goia jotzera zihoala. Bat-batean, ordea, irrati esatari baten ahots ozena entzun zen: «*Goool en Altabixx. Ostibarrek sartu du Osasunaren aldeko gola. Eltxek zero, Osasunak bat*». Ixtantean, areto erdia txalo zaparradaka hasi zen eta oihuka, «*goool, aupa Osasuna, aupa Ostibar!*». Bertze batzuk, aldiz, «*isilik! Silence!*». Hura izan zen zalaparta. Jendea baretu orduko, gurina urtua omen zegoen eta denbora laburrera, *the end, c'est fini*, argiak piztu eta karrakara, erdiak koleran. «*Ostibarrek gol bat sartuko, noiz eta... madarikatua*». Gero, iruindarren artean, batzuk kasinora joanen ziren eta, eguna bururaino eramateko, Lapurdiko errepede bazterreko Chez Maité etxera, zinean ikusi ez zutena bertatik bertara sentitzeko esperantzan.

Martin Goikoetxea «Goiko» ARGAZKILARIA

«Lan honetan jendearekin izan harremana azpimarratuko nuke»

INORK EZ BEZALAKO ARGAZKI ARtxiboa du Martin Goikoetxeak, Goikok. 25 urteotan Berako zein mundu zabaleko argazkiak atera dituen arren, etxeko atariko txokoak ditu maiteen argazkiak ateratzeko.

■ Nola hasi zinen argazkilaritzaren munduan?

Plastikozko argazkiak ateratzen hasi nintzen, edozein afizionatu bezala. Zuri-beltzean ateratzen nituen. Donostian merkealdietara joan nintzen batean bigarren eskuko anpladora bat erosi nuen. Donostiatik autobusean nire anpladorarekin nentorren, loteria tokatu izan bailitzaidan. Kontent, arrunt kontent nengoen nire anpladorarekin, eta horrela hasi nintzen etxeko komunean argazkiak errebelatzen. Eskutrapu batzuekin ateko tartea itxi, bonbila aldatu, eta etxeko guztiek alde egiten zuten tartean aprobetxatu behar izaten nuen, komun bakarra baike nuen.

■ Autodidakta zara, bezaz?

Bai. Garai hartan hemen ez zen ez eskolarik, ez libururik, ez deus ere. Anpladora saldu zidanak azaldu zidan nola funtzionatzen zuen, eta poliki-poliki argazkilaritzaren munduan murgiltzen. Lantegian lanean aritzen nintzen bitartean joan nintzen argazkiak ateratzen.

■ 25 urtek egoera bitxi frango emanen zizuten, hainbertze gozamen unerekin batera, ezta?

Bai, batez ere tarte onak. Hori azpimarratuko nuke nire lanbidetik. Jendearekin izandako harremana izugarria izan da, eta oraindik horrekin gozatzen dut gehien. Sariak jaso ditudanean ere poztu egin naiz, baina pozik handiena eguneroko harreman horretan dago. Bitxikeri franko izan dut, eta horiek guztiak idatzita ditut. Egunen batean hainbat argazkirekin liburuxka bat aterako dut. Gogoan dudan bitxikeriarik nabarmenenetakoa, diktadura osteko lehenbiziko inauterietakoa da. Lehenbiziko aldia zen inauterietan dantzaldia antolatzen zela. Jende anitz ber-



25 urte daramatza argazkigintzan erabat murgilduta. Berako bere dendatik, mundu guztian zehar ibilia da argazkiak ateratzen. 25. urteurrenean sari mordoa jaso du, tartean argazkilaritzako Goya Sariak eta Espainiako Argazkilari Elkarte Profesionalak ematen dituenak.

taratu zen, baina bakar bat ere mozarrotu gabe. Mozorrorik gabeko inauteriak izan ziren.

■ Zure artxiboa izugarri garrantzitsua da Berako herriarentzat, ezta?

Bai, izugarritzko artxiboa dut. Semearekin, poliki-poliki argazki horiek digitalizatu nahi ditut, herritarrek erabili ahal izateko. Ez dut sekreturik nahi. Argazkilaritzak ez du sekreturik behar, denen eskura egon behar duen kontua da, eta ez dakienari erakutsi behar zaio.

■ Goya eta Espainiako Argazkilari Profesionalen Elkarteko sariekin ospatu dituzu 25 urteak.

Bai. Orain arte gutitan aurkeztuak nituen nire lanak sariketetara. Aurten, nire ibilbidearen 25. urteurrenarekin iritsi dira, eta ongi etorriak izan dira. Berako Gure Txokoako Dantza Taldearen argazki bat, Lesakako Zaku-zaharretakoa, Xabierraldikoa, Irungo Alardekoa... saritu dituz-

te. Sariak niri eman dizkirate, baina denbora honetan guztian inguruan izan dudan jendearentzat, lagundu didan guztiarentzat dira, eurei esker lortu baititut.

■ Zein da argazki on baten sekretua?

Argazkia bizitzea. Alardeko argazkian, zaldia zetorrela ikusi nuen, eta une hori bizitu nuen. Banekien argazki ona aterako zela. Argiak ere badu bere garrantzia, baina dagoen argiari bere zuku ateratzen jakin behar da.

■ Kolorea edo zuri-beltze-ko argazkia?

Kolorea lanerako, eta zuri-beltza gozatzeko. Hortik ez nau inork aterako. Kolorea automatikoagoa da. Eskualdean ditugun koloreak izanda ere, zuri-beltzak joko gehiago ematen du.

■ Teknikak anitz aldatu dira, eta digitalaren garaian gaude. Zertan aldatu da zure lana?

Lehen guztia eskuz egin behar zen. Praktikoagoa da orain. Bertzelako lasaitasun batekin lan egiten da orain. Lehen hainbat gauza hartu behar zen gogoan, eta orain, argazkia bizi behar da.

■ Argazkilaritza digitalarekin negatiboa lurperatuko da?

Ez, inola ere ez. Kazetaritzarako, eta denbora guti dagoenatarako hagitz ongi dago digitala, baina kalitatean alde handia dago. Urte anitzetarako dugu oraindik, etxe komertzial guztiek analogikoarekin jarraitzen dute, eta horrek zerbait erran nahi du.

■ Zein argazki gelditu zazu burutan?

Atera ez nuen bat. Baliko merkatu batean zen. Gizon zahar bat zen, bizar zurikoa, eta bota zidan begirada kontuan hartuta, ez nuen atera. Ez dakit zergatik ez nuen atera, baina irudi hura behin eta berriz etortzen zait burura. Lasaitasuna behar dudane-

soslaia

Martin Goikoetxea Plaza orain 52 urte jaio zen Beran. Bere gisa ikasi zuen argazkilaritza, eta geroztik hainbat ikastaro jaso baditu ere, 1976ko azaroaren 11n lortu zuen, San Martin egunez, argazkilari txartela. Orduz geroztik dabil argazkilari lanetan.

Lanean 25 urte bete berri ditu, eta 2001a oparoa izan da beretzat. Bi Argazkilaritza Goya Sari lortu zituen Zaragozan; eta bertze hiru sari jaso berri ditu Sevillan Espainiako Argazkilari Profesionalen Elkartearen eskutik. Urteko bidasotarra izendatu zuten iaz ere.

Jendearekin izandako harremana du maiteen bere lanean. Munduan zehar anitz bidaiatutakoa bada ere, Euskal Herrian atera daitezkeen argazkiak ditu atsegin, bereziki paisaia, ohitura eta kirolekin lotutakoak, txirindularitza eta pilota batik bat.

an argazki hura burura ekarri, eta lasaitzea lortzen dut.

■ Munduko hainbat tokitan ibilia zara. Argazkiak ateratzeko leku bat?

Brasil. Brasilgo haurrak, herri ttikietan, argazki biziak dira. Gehien gozatu dudaldea da. Haurrak eta merkatuak gustatzen zaizkit. Baina hemengoak, etxekoa ere gustatzen zait, bestak, ohiturak, paisaiak. Anitz bidaiatu dut, baina bertako gaiak nahiago ditut. Txirindularitza eta pilota ere anitz gustatzen zaizkit. Bi kirol horiek maite ditut, eta horiei argazkia ateratzea ere bai.

■ Jende ezagun anitzi atera diozu argazkia. Bakarren bat gogoan?

Marino Lejarreta, Titin, Chiapucci, Julio Caro Baroja... jende anitzi atera dizkiot argazkiak, baina Indurainen pazientziak harritu nau. Argazki anitz atera izan dizkiot, eta esker onekoa da.

— Jon Abril



Nafar Kronika

Mikel Beramendi

Auskalerriko sozialistak

Euskal Herria—edo *Auskalerria*, Anjel Lertxundik azken liburuan asmatu duen izena nahiago baduzue— informazio eta iritzi-iturri agortezina da, hemengoentzat bezala kanpotarrentzat ere. Nolanahi ere, *Auskalerriko* herrialdeen arteko desoreka nabarmena da interesa nork eta non sortzen duen aztertzen hasiz gero. Jar dezagun gai bat: sozialisten krisia, esaterako. Hemengo sozialistek—ez naiz orain *Auskalerriaz* ari, Nafarroaz baino— krisi sakon eta larria izan zuten Urralburueriak azaleratu zirenetik. Are gehiago: krisi hura ez da gainditu, gaur egungo egoera eskuindarren mesederako baldintzatu egiten baitu. Eta, hala ere, Redondoren izena gora eta beheara darabilten kazetari madrildarrei ez galdetu nafar sozialisten berri, idazkari nagusia nor den ere ez baitute jakinen. Zergatik? Nafarroa mundua harritzeko sortuagatik, txikiak garelako. Dena den, UPNri aurre egiteko nahian omen dabilen nafar sozialisten idazkariak badu zer ikusi eta zer ikasi hain hurbil eta hain urrun duen Euskal Autonomia Erkidegoan.

Hasteko, *Abc*, *La Razón*, TVE-RNE, Isabel San Sebastian eta antzekoen txaloak, musuak eta besarkadak PPrekiko morrontzaren froga argiena direla. Okerreko estrategia ikusteko ez da bertze seinalerik behar. Hemen ere, antzeko zerbait erran liteke aipatu komunikabide horien lekuan Cordovillako periodikua jarriko bagenu. Hark egurra emanez gero, seinale ona; txaloak, aldiz, susmagarriak. Baina horretaz gain, behingoz oposizio-lana egin nahi balu, beste bi kontu ere argi izan beharko lituzke. Bata: abertzalerik gabeko alternatibarik ez dagoela Nafarroan. Eta, bestalde, etxean bertan dituela alternatibaren aurkako sutsuenetakoak, esate baterako UGTko bere lagunak. Eta ez da harritzekoa, erregionalistek esker garai bateko *progreak* etxegile eta langileen formaziorako exekutibo bihurtu baitira (gogoratuko duzue, bi arloetan iruzurgileak ere bazirela erakutsi dute). Aipaturiko bi baldintzak ezinbestekoak dira alternatibaz oinarriturik jarriko hitz egiteko. Sozialisten idazkaria nondik datorren eta orain arte zer egin duen denok dakigu. Horrek, tamalez, txiste bihurtzen du alternatibarena. *Auskalerrian*, ordea, dena da posible. Baita hori ere.

gure aukerak

ANTZERKIA

- ▶ **Tafalla:** Gabalzeka taldeak Federico Garcia Lorcaen *Profeta en Nueva York* lana taularatuko du, gaur, 20:30ean, Kultur Etxean.
- ▶ **Zangoza:** Iluna taldeak *Antologia de los mejores fragmentos cómicos de las comedias de Enrique Gardiel* lana eskainiko du, Auditoriumean, etzi, 20:30ean.

MUSIKA

- ▶ **Muniain-Iguzkitza:** Su Ta Gar, Berri Txarrak, Nahikoa da, Deus Ex Machina, Dj Andy eta Dj Carlosen kontzertua, bihar, 22:30ean.
- ▶ **Aitzoain:** Albert Plaren emanaldia izanen da, bihar, 22:00etan, Arsaian.
- ▶ **Iruñea:** La Pamplonesak kontzertu berezia eskainiko du, bihar, Gaiarre Antzokian, 20:00etan. Emanaldian zinemako musika entzunen da. Sarrera 3,01 euro kostako da.
- ▶ **Iruñea:** Euskadiko Orkestra Sinfonikoak kontzertua eskainiko du, heldu den asteazkenean, 20:00etan, Gaiarre antzokian.

BERTSOLARIAK

- ▶ **Donamartiri:** Hazparneko Ikastolaren 30 urteurrenaren kariatat, etzi, 16:00etan, ondoko bertsolariek kantatuko dute: Maialen Arzallus, Maindi Muiña, Mizel Mateo, Patxi Iriarte, Txomin Ezponda, Jon Maia, Amest Arzallus, eta Miren Arretxe.
- ▶ **Elizondo:** Antxitonea frontoian, 16:30ean, Juanito Perurena, Roman Miura eta Felix Iriarteri omenaldia. Bertsok kantatuko dituzte Manolo Arozenak, Bittor Elizagoienek, Imanol Lazkanok, eta Jose Agirrek.

IKASTAROAK

- ▶ **Iruñea:** Elur-jauzietan salba-

mentu lanak egiteko ikastaroa egingen dute, Nafarroa Kirol Elkartearen, hilaren 18tik 24ra. Informazio gehiago, 948-224324 telefonon.

- ▶ **Iruñea:** Nafarroako Goi Mendi Eskolak alpinismo ikastaroa emanen du, hilaren 19, 20, 26 eta 27an. Informazio gehiago, Mendi Federazioan (Paulino Caballero, 13).
- ▶ **Barañain:** Otsailetik maiatzera, hainbat ikastaro emanen ditu Barañaingo Udalak: dantza latinoak, zaharberritzea, marrazkilaritza eta pintura, eta zeramika. Asteartea da izena emateko azken eguna, Kultur Etxean, as-

telehenetik ostiralera 10:00etatik 13:00etara; baina asteazkenean, 17:00etatik 18:00etara.

ERAKUSKETAK

- ▶ **Iruñea:** Jon Landaren olio lanak Ormolu galerian dira (Paulino Caballero, 42) hila bukatu arte.
- ▶ **Iruñea:** Javier Gamez mendizalearen *De los susurros del camino* izeneko argazki erakusketa hila akitu arte izanen da, Nafarroa Kirol Elkartearen (Jarauta, 78), astelehenetik ostiralera, 19:00etatik 21:00etara.
- ▶ **Iruñea:** Adolfo Lahoza aragoia-

rraren margolanen erakusketa otsailaren 8a arte izanen da, Hezkuntza Departamentuko klastro gaineko galerian. Lanegunetako goizetan bisitatzen ahal da.

- ▶ **Zangoza:** Hainbat artista garaikideren lan grafikoa biltzen duen *Suite Olympic Centennial* izeneko erakusketa otsailaren 12a arte izanen da, Kultur Etxean, asteartetik larunbatera, 19:00etatik 21:00etara.
- ▶ **Barañain:** Izarren herria ezagutzeko, *Planetario bidaiaria* erakusketa Kultur Etxean izanen da, otsailaren 22a arte.

Asteko erakusketa



● ISABEL ALVAREZ

'Erretratuak'

Artista: Hainbaten artean.

Zer: Zizur Nagusiko argazkigintza lantegiko hamabost ikasleren lanek osaturiko erakusketa.

Non: Zizur Nagusiko Kultur Etxean.

Noiz arte: urtarrilaren 27a arte.

Ordutegia: lanegunetan, 19:00etatik 21:00etara, eta jaiegunetan, 12:00etatik 14:00etara.